

Perpaus osagarriak

- Perpaus osagarriak **norbaitek esandakoa adierazteko erabiltzen dira** eta zenbait mota daude:

–Baiezko perpaus osagarriak: **-(E)LA**

▶ (Jones esan du: Lasterketara joango naiz.) *Jonek lasterketara **joango dELA** esan du.*

–Ezezko perpaus osagarriak: **-(E)NIK**

▶ (Nik ez dut uste: Bihar euria egingo du.) *Ez dut uste **bihar euria egingo duENIK**.*

–Zehar-galderak: **-(E)N**

▶ (Gurasoek galdetu digute: Nora zoazte?) ***Nora goazEN** galdetu digute gurasoek.*

–Aginduak: **-T(Z)EKO**

▶ (Irakasleak agindu digu: Eseri!) ***EserTZEKO** agindu digu irakasleak.*

GOGORATU:

Aukeratu erantzun zuzena kasu bakoitzean.

- Agerrek esan du ez ... haserre.

☐ dagola

☐ dagoenik

☐ dagoela

- Ez dakit nire oparia amari gustatuko ...

☐ zaionik.

☐ zaion.

☐ zaioen.

- Aitak azaldu zidan nola egin behar ...

☐ nuen

☐ nuenen

☐ nuela

- Andonik ogia ... agindu digu.

☐ erostea

☐ erosteko

☐ erostera

- Ez dirudi euria egin ...

☐ dezakeenik

☐ dezakeela

☐ dezakenik

- Zuk ez diguzu argitu etorriko ...

☐ zaren ala ez

☐ zarenik

☐ zaran

- Lagunok, ez pentsa zuek dena ...

☐ dakizuela

☐ dakizueenik

☐ dakizuenik

- Aizue, ez ahaztu bihar azterketa ...

☐ daukaguela

☐ daukagula

☐ daukagun